



“Zertarako galdetu erantzunik ez entzutekotan?”

Arantxa Iturbe | Uhinetako arantza

Gure irrati modernoaren ama gaztea da. Baita ipuingintzan trebatutako idazle preziatua ere. Bietan lortu du kritikaren zein publikoaren begirunea.

FERMIN ETXEGOIEN

Argazkia: Dani Blanco

Patxi Lopezek ba al daki nor zaren?

Ez dut uste, eta ez du zertan. Zer egiten dudan jakingo balu izugarri poztuko nintzateke: esan nahiko luke guk komunikatzeko erabiltzen dugun hizkuntza ezagutzen duela eta komunikatzeko duguna intereseko duela.

Alegi herrian jaio zinenean... Alegria zen, alegia!

Han geratu zen nire haurtzaroa, “r”-arekin batera.

Egunero irratsaio bat prestatzen duzu euskal kulturaren oinarritua. Ogi eta arrainen mirakulua?

Ez dut mirakuluetan sinesten. Okin eta arrantzale askoko herri txiki batean bizi gara. Zorionez.

Bi hauen artetik zein hazten ari da progresio azkarragoan: elkarrizketatu dituzun euskaldunen multzoa ala elkarrizketatu ez dituzunena?

Sentitzen edo pentsatzen dutena euskaraz esateko gai direnen multzoa hazten ari da. Ez nik nahi bezain progresio azkarrean. Eta ez prexiko guretzat elkarrizketagai bihurtuko lirakeelako eta lana erraztuko liguketelako. (edo ez horregatik bakarrik, behintzat).

Gure herrian emakumeak arratsaldero batu ohi ziren solasteko... Nire aldetik ondo deritzot orain irratia zuena izateari.

Kondeszendentsia apur bat sumatu ote dudan hitz horietan...

Gainera arratsaldekoak eredugarriak zarete lanbide honen lehen araua betetzerakoan: badakizue entzuten!

Zertarako galdetu erantzunik ez entzutekotan?

...eta jendeak ba al daki(gu) hitz egiten?

Denok. Eta gehienak gainera, badauka(zue) zeresana.

Idazle modura, emakumeen mintzoa literatura bilakatu duzu *Kontu jaten* elkarrizketa bilduman.

Beren bizitza/z kontatzeko ausardia izan zuten zenbait emakumeren istorioak ipuinez jantzi nituen. Kuriosoa da: zer kontaturik ez daukala uste duen asko kontatzen entzutea baino gauza erakargarriagorik...

Aukeratu beste herrialde bat bizitzeko, mese-dez.

Argi gehiago duen edozein. Orain gutxi arte uste nuen eguraldia eta ni unibertso desberdinetan bizi ginela; orain, leihoa zabaldu eta lainoekin topo egiteak eguna lainotuta hasi arazten dit.

Beste garai bat; animalia bazina; Arantxa izenaren orde zekin...

68ko maiatza, Parisen (baina ez neskame, garai hartan seguruenik egokituko zitzaidan bezala...).

Animalia naiz. Oso basatia, batzuetan.

Arantxa ez da izena bakarrik. “Arantxa” naiz. Izana berekin du. ■